



Eman hegoak euskarari



Sastraka: toki hutsera bidea

Oinarri-oinarrian, zutabe nagusi gisa, Pello Lizarralderen literaturan usu nagusia den idazte moldean osaturiko 'Sastraka' ipuina dago

JON KORTAZAR



Luxuzko liburuen urre aroa izan zen aspaldi gure bizitzan, bai. Hazkunde ekonomikoak, kultura nahiak eta euskal nortasuna indartzeko gogoak, hirurek batera, ekarri zuten liburu ederren aroa gure artera.

Bizkar ederra ageri zuten liburuak modu bitakoak ziren, entziklopediak edo publizitatezkoak. Aldez aurretik, eta eskola ahul baten hutsuneak bete nahirik edo, gure haurtzaroko etxeetan entziklopediak pixkanaka agertzen ari ziren. Horien modura eduki genituen La Gran Enciclopedia Vascak atera zituen bilduma sorta. Nork ez ditu ikusi gure etxeetan Aita Barandiaranen 'Lan Guztiak' erreskadan, bere kolore marroiak apala argiztatuz?

Pixka bat geroago heldu ziren Laboral Kutxako liburu apain,

eder eta irudiz beteak. Hor bi ziren bideak. Batzuek dantzari, poxpolin, erremulari eta baserri argazkien bidez euskal identitatearen irudi ezti bezain argia eman nahi zuten. Besteek, Joan Mari Torrealdeari egindako argitalpenek, berriz, literatura eta nazioaren arteko lotura indartu zuten.

Pello Lizarralderen asmoa

Liburuaren demokratizazioak galdu egin zuen euskal liburu handikien eta nobleen aroa. Baina, hara non eta ikuspegi guztiz desberdina delarik, Erein etxeak Pello Lizarralderen 'Sastraka' ipuina oinarri duen proiektu kulturala argitaratu duen, berriro liburu mardulak esku artera ekarri.

Pello Lizarralde berak kontatzen du nola gauzatu zen ibilbi-

dea. Hasieran idazleak eta José Ignacio Agorretak elkarrekin zerbait egin nahi zutela eta hark ipuina idatzi eta bigarrenak pin-turak egin zituen.

Arteen arteko elkarrizketen oinarri

Gerora, Imanol Ubedarengana hurbildu ziren. Eta literatura eta pintura zen material hura abesti bihurtu zuen musikariak, hama-bi abesti eder sortuz ipuinean ageri diren esaldi mamitsuetan oinarrituz. Bukatzeko, Imanol Royo zinemagilea (iragan astean ezagutu nuen Iruñean) gurutzatu zen bidean, eta ipuinaren inguruan filma sortu ordez, argazki bilduma narratiboa egin zuen.

Laurok proiektua erakusketen eta kontzertuen bidez zabaltzeko asmoa dute, baina artean, liburu bihurtu dute asmakizun eta bi-

dezidor hori, asmoz eta egin-kizunez, liburu potoloetatik urrunduz.

Izadia eta hondakina

Oinarri-oinarrian, zutabe nagusi gisa, Pello Lizarralderen literaturan usu nagusia den idazte moldean osaturiko 'Sastraka' ipuina dago. Idazleak maite duen moduan, ibilbidea, bidaia da hari narratibo fina: iraganean eta oroimenean dagoen etxe baten bila abiatu da pertsonaia narratzailea gaurko hiri egoetatik irten eta guztiz galdurik dagoen etxe huts eta hits horren bila. Horrez gain, bidean ikusi eta sentitzen dituen sentipenen deskribapen xumea darabil idazleak, ibilbidea bizipenez osatu arte. Askotan iruditu zait Lizarralde dela 'Nouveau Roman' en ikuspegi teknika osoen darabilen gure idazlea, baina frantsesek hoztasunez zerabilten ikuspegi berak sentipenen bilketa bilatu du. Deskribapena lirikotasunez osatu du beti bere literatura.

Javier Rojok, idazlearen kritiko maisu eta irakurle porrokatuak, horrela adierazi zuen Pello Lizarralderen literatura: «Momentu oro hitz egokia era-

biltzeko ahalmena du eta xehetasun horien artean sentsazioei dagozkienak lehenengo plano batean agertzen dira, halako moduan non gai baita irakurleak sentsazio sare horretan murgilarazteko».

Ipuinean egindako ibilbideagatik, beharbada, testua niri, amonarik gabeko eta etorkizunik gabeko Lizarralderen 'Asaba zaharren baratza' berri bat iruditu zait. Protagonista poetikoak bide bat egin du oroimenean zehar, hutsarekin eta baratzarekin, sastrakarekin topo egiteko. «Oro laino mehe batek» ukitua da testuan, José Ignacio Agorretaren pinturatan ageri den moduan. Dena dago nostalgiak jota.

Eta Pello Lizarralderen hizkera poetiko ederrean esaldiak joserik geratzen dira irakurlearen memorian. Hala nola hasierakoa eta bukaerakoa: «Inor ez da kalterik gabe ateratzen oroitzapen batetik» eta «Galdera bat gainerako guztiak itotzen dituen eta ibilian baino ez da aienatzen». Ipuinaren ibilbide poetikoaren zein bizi-minaren laburpena erakusgarri. Idazleak bere ibilbide existentziala eman du maisuki idatzia den ipuinean.

Gaixotasunak eta beste

PALOMA RODRIGUEZ-MIÑAMBRES

Literatur munduan sartzeko modu bat dira sariak; dena den, beti ez diete sarituei behar adinako oihartzunik bermatzen prentsan eta haien aintzatespena ezkutuan gera daiten argitaratzen diren berrikuntzen artean. Hori jazo da Lierni Azkagortarekin iaz «Iruña Hiria» VI. Nazioarteko Poesia Sariak irabazi ondoren, eskarmenturik badu ere sorkuntza literarioan.

Olerki hauek egilearen lan-esperientzian dute oinarri sendoa –erizaintzan dihardu ogibidez– egituran zein gaitegian. Hots, gaixotasunak eta gorputza abiapuntutzat harturik, errealitatea ulertu nahian dabil poeta inguratzen duen orotan, baina bere burua bakar-tu gabe, gizakion bizi izatearen zauriak erakusgai.

Alde batetik, poema-liburu osatzen duten hiru atalen esangura –'Ektodermia garaikidea'; 'Inperio mesodermikoa' eta 'En-

dodermia arkaikoa'– honakoa da Azkagortaren hitzetan: lehenengoan, gaur egungo gizarteari egiten dio erreferentzia; bigarrenean, gorputzaren barnerako bidaiara eramaten gaitu; eta hirugarrena, pentsamenduen eta sentimenduen erreinu gisa planteatzen du, bihotzarena eta garunarena, alegia. Beste aldetik, erizaintzarekin erlazionatutako lexiko oparoa erabiltzen du idazleak eta aukeraketa horren bidez (anosmia, polipo, anputatu, blisterra) eguneroko egoera gogorak, bizieraren estualdiak sublimatu egiten ditu. Termino horien lanketak batasuna ematen dio liburuari, gorputzaren gainbehera, heriotza, denboraren igarotzea («Peter pandemia»), azalke-ria («Merkealdia»), ezinegona («Isiltasunaren grabitatea»), besteak beste, islatzen dituelarik.



ERIPOEMIA LIERNI AZKARGORTA RUIZ DE EGINO
Denon Artean. 66 orr. 10 euro

Poetaren begiradan bizialdiari buruzko gogoeta eratzen da modu organikoan, existentziak eman eta kentzen digunerako ez dagoela leungarririk ohartzaraziz. Alabaina, poesiak emozioen katarsia eragiten du bizi-minaren haraindikotasunean, sentitzen eta arnasten dugunaren adierazpen eta ezagutza baliotsua eskainiz.

LABUR LABUR

Kontzertuak, BBK Aretoan, BBK Liveren atariko gisa

EL CORREO

Bilbao BBK Live jaialdia uztailan izango da baina horren aurretik hainbat kontzertu ikusteko aukera egongo da. Izan ere, BBK Aretoak Cupido, La Habitación Roja, Ibil Bedi eta Airu taldeak hartuko ditu, ekainaren 3tik 11ra bitartean. Tulsa artista bizkaitarra, Depedro, Corizonas eta Neuman musikariek ere zuzenekoak eskainiko dituzte. Sarrerak salgai daude dagoeneko, 12 eta 27 euro bitarteko prezioan, BBK aretoaren webgunean.

Gainera, J Balvin, The Killers, LCD Soundsystem, Pet Shop Boys, Stromae eta Placebok 2022ko Bilbao BBK Liven joko dute, jaialdiaren antolatzaileek jakitera eman dutenez. Aurtengo edizioa uztailaren 7, 8, eta 9an izango da, Kobetamendin. Kartel buruez gain, Moderat, M. I. A., Nathy Peluso eta Four Tet ere izan-



La Habitación Roja taldea.

go dira bertan, baita Phoebe Bridgers, Zahara, Rusowsky, Lori Meyers, Carolina Durante eta Sen Senra ere.

Nazioarteko artistez gain, euskal taldeek ere leku propioa izango dute aurtengo edizioan; Chill Mafia, Nøgen, eta Ezpalak ere bertan izango baitira.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Desertuan behatxuloa
Anjel Lertxundi. Alberdania

2 Azken etxea
Arantxa Urretabizkaia. Pamiela

3 M Ama Eme Ume
Estitxu Fernandez/Erika Lagoma. Elkar

4 Izurdeen aurreko bizitza
Kirmen Uribe. Susa

EZ FIKZIOA

1 31 ipuin
Anton Txekhov. Elkar

2 Mandamentu hipermodernoak
Iñigo Martinez. Elkar

3 Bestealdean
Jaione Dorai/Ernesto Prat. Txalaparta

4 Euskal herriko leiendak
T. Martinez de Lezea/J. L. Landa. Erein